

HISTORIA

5.GAIA

5.1)BIGARREN INDUSTRIA IRAULTZA

Faktore nagusiak:

1) Biztanleriaren hazkundera:

Medikuntzaren aurrerapenak eta **osasuna**rekin eta **garbitasuna**rekin loturiko ekintzak populazioa hasia eragin zuen. Beste aldetik, biztanleen **banaketa berria** eman zen. Jende asko nekazaritza ginetatik hirietara jo zuen(**landa exodoa**) eta nazioarteko **emigrazio** asko egon ziren(herrialde eta kontinenteen artean). Landa exodoak **hiriak eraldatu** zituen, etorkinentzat lekua izateko: Hirien zabalguenen eraikuntza, **hiri hierarkia**(aberatsentzako auzoak eta langileentzako auzoak) eta hiriak ireki. Hirian **zerbitzu berri** asko zabaldu ziren, aurrerapen teknikoekin eta garbitasunarekin lotuta (estolderia, argiztapen sistemak, garraio publikoa)

2) Nekazaritza hazkundera:

Biztanleriaren hazkundera nekazaritzaren **emankortasuna handitzea** bultzatu zuen. Hazkundera hori mekanizazioan eta industria kimikoan oinarritu zen:

- **Mekanizazioa**ri esker, errendimentuaren handipena eman zen (makinak, industriara bezala, nekazaritzara ailegatu ziren).
- **Ongarri kimiko**en erabilpenari esker, produktibitatea handitu egin zen.

Garraioaren garapenari esker nekazaritzako produktuak hirietara kantitate handiagoan eta azkarrago ailegatzen hasi ziren.

3) Garraiobideen iraultza:

- Trenbidearen luzapena
- Itsas garraioa: lurrin itsasontziak
- Aire garraioaren lehen urratsak(zeppelin-a)

Mundu berri bat sortu zen, gero eta hobeto konektatua, distantziak moztuz eta bidaiaren denbora murriztuz. Ondorioz posible egin ziren migrazio mugimendu masiboak eta eskala handiko merkataritza.

4) Industria munduaren hazkundera eta bilakaera.

Sektore berriak:

- Kimikoa: produktu farmazeutikoak, ongarriak, tindagaiak, lehergailuak.
- Elektronikako lehen urratsak (irradiak).
- Metalak: altzairua, aluminioa, nikela.
- Eraikuntzarako industria.
- Garraio industria: autoak, trenak, kamioiak, hegazkinak.

5) Eredu politiko berriak:

Nazio-estatuaren garapena:

Aldaketa ekonomiko, demografiko eta sozialak (burgesia eta proletar goaren sorrera) aldaketa politikoak ere bultzatu zituen, ondorioz trantsizioa "Erregimen Zaharretatik" Nazio-Estatuaren eredu politikora.

Estatu-Nazioaren ezaugarriak:

1) **Herritartasuna**-ren kontzeptua sortzen eta hedatzen da. Herritartasuna biztanleria eta nazioaren arteko harremana estutu nahi du. Lege berrien bidez, eskubide berriak sortzen dira: (sufragio "unibertsala" eta elkarteak sortzeko askatasuna). Desberdintasun sozialak mantentzen dira, baina lege berriak sistema zaharra gainditzen dute.

2) Burgesia "Ekonomia Nazional" bat sortuko dute (barne aduanak ezabatu merkataritza errazteko eta industria berrien etekinak handitzeko). Horregatik, estatu-nazioen sorrera **kapitalismoa**rekin lotuta dago. Sistema berriaren oinarriak hauek izango dira:

- Jabetza pribatua oinarritutako sistema ekonomiko eta soziala.
- Kapitalaren garrantzia.
- Kontsumoaren sustapena.
- Merkatuen kontrola.

Nazio-estatuarekin batera, **nazionalismoa** asmatu eta hedatu egin zen.

Nazionalismoaren oinarriak:

- Hezkuntza nazional bat.
- Hizkera komun nazional bat finkatu.
- Balio, ohitura, erlijio eta tradizio propioak biltzen dituen kultura nazional bat sortuko da.
- Lotura eta elkarkidetzaren nazionalaren sentimendua bultzatuko da.

6) Kolonialismo mota berri baten hedapena:

Bere nagusitasun tekniko, ekonomiko eta militarra baliatuz Europan, Asian, Afrikan eta Ekialde Hurbilean kolonialismo mota berri bat garatzen hasi zen. Kolonizazioak kontrolatutako herrialdeetan esplotazio ekonomikoa eta dominazio geografiko eta politikoa ekarri zuen. Potentzien hedapen gosea gatazkak sortu zituzten, eta horrek eragin handia izan zuen Lehen Mundu Gerrarako.

Kolonialismoaren zergatiak:

- Ekonomikoak: Europako herrialdeek merkatu berriak behar zituzten beren soberakinak saltzeko eta lehengaiak eskuratu ahal izan zituzten kostu txikian.
- Demografikoak: Migratzeko aukera berriak eman ziren, biztanleriaren hazkundearen testuinguruan.
- Politikoak: Metropoli handiak lehiaketa politiko eta militarrean sartu ziren eremu geografikoak kontrolatzeko.

- Ideologikoa: Europako nazionalismo berriak nazio batzuen nagusitasuna defendatzen zuen besteen gainetik. Ikuspegi honek arrazismoa ekarri zuen, gizaki zuriak beste etnia batzuen gainetik zeudela esanez.

Europako potentziak lurralde kolonialak modu desberdinetan antolatu zituzten lurraldearen arabera:

- Emakidak: Kolonialismo mota hau herrialde independenteetan egin zen.
- Protektoratua: Kasu hau gobernua indigenak zeukaten herrialdeetan eman zen.
- Koloniak: Metropoliaren menpe zeuden lurraldeak ziren.

5.2) Gizarte berri bat, lan harremanen mundu berri bat

Industriaren estruktura mekanizatu berriak produzitzeko modu berrien sormena ekarri zuen. Garrantzitsuenak: Taylorismoa eta Fordismoa.

Taylorismoa

Asmatzailea: Frederick Taylor (ekonomista amerikarra, 1856-1915) - Taylor-en ideiak:

- Hazkunderaren teoria: Produktibitatea handitzeko lanaren errendimendua handituz lortuko da.
- Taylorismoaren helburu ekonomikoak: produkzioa handitu, produkzio prozesuak gehiago kontrolatuz.
- Lanaren antolaketa zientifiko bat:
 - Produkzioa sakabanatu: kate ekoizpena.
 - Denboraren kontrol integrala: kronometroak fabriketan ezartzen dira.
 - Errendimenduari egokitutako soldatak: gehiago produzitzen duenak gehiago irabaziko du.

a) Ondorio ekonomikoak

Aipatutako faktore guztien konbinazioak eragin ekonomikoa izan zuen.

Produktibitatea eta enpresaburuen errendimendu ekonomikoak inoiz bezala areagotu ziren.

b) Taylorismoaren ondorio hierarkikoak

Langileek produkzio erritmoan kontrola galduko dute, patroiak "denboraren zuzendari" berriak izango dira. Taylorismoa baino lehen, langileak produkzio fase guztietan lan egiteko gai ziren, ordezkatzeko zailak. Gainera, makina gutxi zeudenez, langileen gaitasunak oso garrantzitsuak ziren. Enpresaburuek ezin zuten langile kualifikatuak errazki ordezkatu, beraz, **PRODUKZIOAREN ERRITMOA ETA LAN EGITEKO ERA LANGILEEN ESKUETAN ZEGOEN**. Taylor konturatu zen produkzioa kontrolatu behar zuela, lanaren erritmoa ezartzeko gai izateko. Nola lortu zuen: Produkzio faseen banaketarekin eta fabriketan makinaren ezartzearekin batera, langileek behar zuten maila teknikoa jaitsi egin zen, eta horrela errazago zen

langileak ordezkatzeari, beraien errendimendua edo motibazioa baxua izatekotan. Helburua beti gehien produzitzea izango da.

Fordismoa

Taylorismoaren sofistakazio bat da. Asmatzailea: Henry Ford. Fordismoak elementu berriak sartu zituen lantegian:

- Zinta: Zintaren abiadura erregulatzeko ahalmenarekin, produkzio erritmoak kontrolatu ahal zen.
- Ekoizpen faseak gero eta gehiago banatzen dira, lanpostu guztietan trebetasunen eta ezagutzen beharrak ezabatzen.
- Makinismoa: ekoizpen fase desberdinetan, gero eta makina gehiago erabiltzen dira, eta beraz, gero eta langile gutxiago.
- Lanen antolamendua "lerroetan": Langileburuen kontrola errazten du. Sistema honekin langileen erritmoaren kontrol maila zorrotzagoa da, zeren bere lana moteltzen bada, kate osoan eragina du.

1914an, Ford-ek soldata hitzarmen orokor bat publikatu zuen. Bere erabaki ikusgarriena soldata orokorrak bikoiztea izan zen: eguneko 2'5 dolarretik 5 dolarrera (The Five Dollars Day Campaign). Soldaten igoera langileentzako motibazio bezala erabiltzen da, Fordismoak eskatzen duen erritmoa eta metodoak jasan dezaten. Soldadak areagotzeaz gain, errendimendu altuenak aparteko ordainketekin saritzen zen, bai langile produktiboentzat, bai langileburu eraginkorretzat. Ahalik eta lan gehien egin, diru gehiago. Soldata altuen bidez, langileen kontsumitzeko modu berri bat bultzatu zen. Soldata-gastuaren kontrol zorrotz bat ezarri zen. Langile baten gastuak desegokiak baziren (gaueko aisialdia, alkohola, apustuak...), edo sindikatuarekin harremanak bazeuzkan, fabrikatik kaleratzen zen. Langileek produzitzen zuten autoak erosteko gai izan behar ziren. Bizitza pribatua merkaturatzen da, kapitalismoa bultzatuz.

Fabrikako zuzendariak langileen eta fabrikaren arteko lotura ahalik eta indartsuen izatea nahi dute (langileen alienazioa). Horretarako, 2 "aurkarien" kontra borrokatzen dute:

- Langileen eta sindikatuen arteko lotura.
- Langileen elkartasuna.

Hori saihesteko langileei estimulu desberdinak eskaini behar:

- Fabrikarekin lotutako aurreikuspen sistemak sortuz.
- Gaixotasunetako eta lan istripuetako egoeraetatik langileak babesten ziren. Langileak derrigorrez sartzen ziren sistema hauetan, eta fabrikak diru laguntzak ematen zituen.
- Lanaldien orduak gutxituz (8 ordu) eta enpleguan erregulartasuna diru sariekin bultzatuz greba gutxiago egotea lortzen zuten.

5.3) Kapitalismoaren lehenengo krisi handia: 1929ko Krak-a

Lehen mundu gerran, XIX. mendetik zetorren garapena gelditu egin zen:

- Gerrako ekonomia industrian eragina izan zuen.
- Hildako asko, ondorioz lan egiteko esku gutxi.

Hala ere, 1924. urte aldera, ekonomia berriz handitzen hasi zen. Estatu Batuak munduko motor ekonomikorik handiena eta kapitalismo berri baten oinarri bihurtu ziren. Horrela, “Belle Époque” edo “20. hamarkada zoriontsua” deitu zen denbora sortu zen.

Garai honetan biztanleak behar gutxiago eta gero eta plazer handiagoa. Lehen bakarrik jende garrantzitsua zegoen egoera horretan, orain ia guztion eskura zegoen. Gizarte berri hau kontsumitzeko ahalmen handiagoa zuten eta aisialdirako eta soziabilitaterako aukera berriak:

- Erritmo berriak (jazz, charlestón)
- Soziabilitateko espazio berrien eta klasikoen hedapena (kabaret-ak, zinemak, elkarte klub-ak, antzokiak...).
- Kirolaren praktika eta jarraipena.
- Irratiak eta fonografoak gero eta etxe gehiagotara ailegatzen dira.
- Publizitate modernoaren agerpena.

Hainbat arrazoi daude aldaketa hauen zergatia azaltzeko. Alde batetik, 1MG.

Europar bereziki latza izan zen eta EEBBren garapen ekonomikoa Europa berreraikitzeke esportazioetan oinarritu zen. Beste aldetik etxean, autoen etabarreko erosketak bultzatzen ziren. Kapitalismoak kontsumismo filosofia arduragabe bat nahi zuen, bizimodu amerikarra. Horrez gain, EEBBko finantza sektoreak asko aberastu zen, guda osteko Europa berria eraikitzeke maileguren bidez. EEBBko borsaa (Wall Street) mundu kapitalistaren oparotasun ekonomikoaren adierazle bilakatu zen. Borsan inbertitzea edonoren eskura zegoen. Geroz eta herritar gehiago borsan inbertitzen, diru iturri seguru eta agortezina zela pentsatuz, maileguak eskatzen hasi ziren gehiago inbertitzeko.

Kapitalismoa krisian: 1929ko Krak-a

20ko hamarkadaren amaieran, Europa bere produkzio erritmoa berreskuratu zuen eta EEBBko produktuen eskaera jaitsi. Ondorioz, EEBBetan

superprodukzioaren arazoarekin aurkitzen da (Produzitzen dena kontsumoa baino askoz handiagoa da) eta **deflazioa** agertu (prezioen jeitsiera orokorra).

Akzioen balioa gutxitu eta jendearen erosketa ahalmentan jaitsi. 1928. urtean eraikuntzaren sektorearen garapena gelditu zen eta Europaren dependentziaren bukaera gertatu zen. Eraikuntzarekin lotuta dauden beste sektore batzuk atzerakada nabari bat egin zuten. Poltsaren akzioen jeitsiera berri eta handiago bat egon zen, dirua murriztu edo desagertu zen. Beste superprodukzio handiago bat gertatu eta ondorioz fabriken itxiera, langabezia eta EEBBetan krisi handi baten lehenengo sintomak agertu.

1929ko Urriaren 24an Wall Street-eko poltsaren erorketa masivo bat gertatu zen. Akzioen prezioa gero eta gehiago jaisten zen eta inork ez zituen erosi nahi. Egun horretan, salgai zeuden akzioen kopurua 13 milioira heldu zen. Urriaren 29an: 19 milioi akzio salgai, akzioen prezioa gero eta baxuagoa. Banketxeak jendearen dirua zeukan akzioetan inbertituta eta banketxeak jendearen dirua galdu eta langabezia izugarri handitu. Krisiaren eraginez, EEBBak Europan eta Latinoamerikan zeukan inbertsio gehienak eta maileguak erretiratuko zituen. Lurralde hauen ekonomiak EEBBen modelu kapitalista liberalistan oinarrituta zeuden eta EEBBko finantzazioaren desagerpenarekin krisi masiboa mundu kapitalistan. EEBBko kapitalen dependentzia zeukaten fabrika asko itxi zuten eta langabezia igo zen. Krisi internazional bat sortu zen.

Eragin gehiago Alemanian eta Austrian: industriak EEBBen kapitalen dependentzia gehiago zeukaten. Eragin gutxiago Frantzia: industriaren pisu gutxiago ekonomia nazionalean, nekazaritza garatu ta dibertsifikatua eta Britaina Handian: bere Inperioaren bariedade eta handitasunari esker, mantentzeko gai izan zen. BAINA libra esterlina asko devaluatu zen. KRISIA DELA ETA, EUROPAKO LURRALDE POLITIKA PROTEKZIONISTAK EZARTZEN DUTE, EKONOMIAK MENPEKOTASUNIK EZ IZATEKO.

Krisiaren ondorioak:

- Kapitalismo liberalaren ezaugarriak zalantzan jarriko dira.
- Keynesianismoa.
- Estatu totalitarioen sorrera (Italia eta Alemania).
- Ideal komunistaren hedapen politiko garrantzitsua.

6.GAIA (6.1)

6.1) KAPITALITARISMOAREN KRISIA ETA TOTALITARISMOAREN IGOERA. GIZARTEA, POLITIKA ETA LANA ALEMANIA NAZIAN ETA ITALIA FAXISTAN

- Totalitarismoaren igoeraren zergaitia:

1929ko krisiak langabezi maila eta pobrezia maila altuak utzi zituen, eta horrekin batera haserre soziala zegoen. Horrek nazioa krisi ekonomiko eta politiko batera eramane zuen eta egoera horretan estatu sendo bat sortu nahi zen, nazioaren berreraikitze batekin. Gero eta jende gehiagok demokrazia ustel eta korrupzioz betearen kontra joan zen eta proposamen politiko berriak agertzen

ziren ordena eta potentzia berreskuratzeko, eta hiritarren duintasuna berreskuratzeko kapitalismoaren eta korrupzioaren aurka jotzen. Diktadurak 20 eta 30. mendeetan hasi ziren hedatzen; Italian, Alemanian, Espainian...

Alemaniarren kasuan 1. Mundo gerrako porrota eta gero ekonomia egoera larri batean zegoen. Versailleseko itunaren arabera, Alemaniak 132 biloi marko zor zizkion Frantzia eta Ingalaterrari gerran egindako kalteengatik baina Alemaniak zeukan larritasun ekonomikoagatik ordaintzeari utzi zion 1923an eta horren ondorioz Frantziak alemaniarrenak ziren meatzaritza lurak okupatu zituen eta ustiatzen hasi zen.

- Mussolini eta Hitlerren igoera

ITALIA ETA MUSSOLINI

1MG bukaeran, krisi ekonomiko larri bat zegoen eta horrekin batera industria suntsituta geratu zen. Honek inflaxioa ekarri zuen eta langabeziak gora egin zuen. Egoera honetan prezioak igo ziren eta herritarrek ez zeukaten erosteko ahalmenik. Testuinguru politikoan kokatzeko, Italian Biennio Rosso 1919-1929 zegoen karguan, Alderdi sozialista eta komunistako koalizioa zen. Honek gatazkak sortarazi zituen. Erregeak, burgesia, lurjabeak, armada eta eliza ideologia kontserbadorea zuten eta boltxebismoa Italian garatzeko beldurra zuten, hau da, langile antolakuntzari eta elkarkidetzeari beldurra.

1919. urtetik aurrera, politikan hasia zen Mussolini talde paramilitar antikomunista bat sortu zuen, sozialistekin,, intelektualekin eta elite ekonomikoekin. 1921. urtean partidu nazionalista Fascista sortu zen. Haien promesen artean laneko orduen erregulazioa, gutxieneko soldata ezartzea eta aseguru soziala ziren. Programa politiko bat sortu zen birsorkuntza nazional baten beharra ikusten zutelako Italia sendotzeko eta herrian ordena berreskuratzeko.

1922. Urtean sindikatu sozialistak eta komunistek greba orokor batera deitu zuten herritarrek eta ondorioz, talde faxistak mehatxuak eta indarra erabiliz gerra apurtu zuten hainbat sektore garrantzitsuetan. 1922ko urrian, talde faxistak erromako martxa antolatu zuten eraikuntza publikoen komunikabideen okupazioarekin etab. Indarra erakutsi zuten eta armadak ez zuen ezer egin horren aurka nahiz eta sozialisten gobernuak interbentzioa agindu, beraz armada faxismoa lagundu zuen. Gobernuak dimititu zuen, eta erregeak Mussoliniri boterea eman zion.

HITLER ETA ALEMANIA

1921. urtean, krisialdi ekonomikoa zegoen bitartean, Hitlerrek Alderdi nazional sozialista sortu zuen (NSDAP) eta alderdi honekin batera milizia armatu baten sorrera eman zen (SA). Ideologia antikomunista eta birsortzailea zuten eta Alemaniako alderdi tradizionalekin bukatu nahi zuten Alemania berri eta puru bat sortzen benetako funtsa berreskuratzeko. Nazioaren sinbologia sortu zen esbastika, erromatar agurra.. eta desfile eta eszenografiak garrantzi handia zuten.

1923. urtean, Hitlerrek estatu kolpe bat eman zuen eta porrot bat izan zen, ondorioz 6 hilabete kartzelan egon zen eta Mein Kampf idatzi zuen bere ospea areagotzeko, Alemaniako egoera sozial eta politikorako irtenbide aurkitzen ez duen sistema politiko baten alternatiba gisa. 1929. Urterako, Nazional sozialismoak ospea lortu zuen burgesian eta nekazaritzan, langile eta armadaren artean. Krisi ekonomikoak alternatiba naziaren giza onarpena erraldoitu zuen.

1933. urtean NSDAPk hauteskundeak irabazi zituen botoen 43%arekin eta alderdi katolikoan laguntzarekin.

HITLER ETA MUSSOLINIREN TOTALITARISMOEN EZAUGARRIAK

Politikan: alderdi bat, sindikatu bat eta ideologia bakar bat zegoen eta gizartearekin zerikusia zuten esparru politiko guztiak estatuaren kontrolpean zeuden. Lider salbatzaile baten irudia sortu nahi zuten nazioaren etorkizuna gidatuko zuena etorkizun oparo eta indartsuago baten bila.

Gizarte kontrola: Irrati, prentsa, zinema.. kontrolpean zituen eta komunikazio bide guztiak, hedapen mota berri bat sortzeko oldarkorragoa, masiboa.

Geografikoa: Inperioaren totalitarismoaren zerbitzura.

EKONOMIA ETA LANGILEEN EGOERA ESTATU TOTALITARIOAN

1. Bai Alemanian eta baita Italian ere estatuak esku hartzen zuen, arlo ekonomiko eta sozial garrantzitsuak garatu zituen: Industria/ batez ere gerrarako industria eta industria astuna) Obra publikoak (errepideak, urtegiak, iturriak...) Etxebizitza plan herrikoian. Guzti honen emaitza langabezia tasaren beherakada izan zen bai askatasun gabezia igartzen zen testuinguruan. Alemania 1939an munduko bigarren industria handiena zen.

2. Protekzionismo totalitarioak irakasten du nazio handi bat ez duela menpekotasun ekonomiko edo industrialik izan behar. Langileek euren lanaren bidez nazioa handiagoa bihurtzen lagundu behar dute nazioak langileen ongizatea zainduko duelako trukean.

3. Haien ustez, osasun ona eta indar gehiago daukan langile bat nazio indartsuago bat eraikiko du. Gizarte politika sustapenak batez ere hiriko industria arloko gizonezko langileetan ezarriko dira haiek zirelako industriaren motorra. Nekazaritza politika sozialetik at geratzen da eta emakumeen babesa amatasunaren babesean oinarritzen da. Jaiotza tasa ere sustatu zuten, gero eta biztanle gehiago nazio indartsuago bat sortzen zela pentsatzen zutelako. Langileei zergak inposatzearen truke estatuak hiriko gizonezko langile industrialei gaixotasun eta laneko aseguruak eskainiko die. Honekin batera, ospitaleen eraikuntza bultzatuko da baina bakarrik benetako italiarrei edo alemaniarrei babesten zaie. Bukatzeko, ijitoak, juduak, desgaituak eta desadostasun politikoa zeukatenak exekutatu edo kartzelara bidaltzen zituzten.